

2 urtez galera izan ondoren, goraka Euskal AEko biztanleria

10 urtetan, 100 urte edo gehiagoko pertsonak bikoiztu egin dira

Euskal AEk 2.173.210 biztanle ditu 2015ean, Eustaten datuen arabera; aurreko bi urteetako galera eten egin da. 2014an baino 333 pertsona gehiago gara eta 2012an baino 8.380 gutxiago, orduan izan baitzen maximo historikoa.

Bizkaian (-2.772) bakarrik murriztu da biztanleria 2015ean; 2013 eta 2014an (-9.920) bezala. Araban 1.745 biztanle gehiago, ia 2012an bezalaxe. Gipuzkoak 2012tik hona 4.397 biztanle irabazi ditu, 1.360 azken urtean.

2015ean Gasteiz bakarrik hazi da (+1.837). Donostia -106 eta Bilbon -1.209; bien artean Gasteiz hazi dena baino gutxiago. Donostia eta Bilbon, biztanleria 2009tik jaitsi da, orduan izan zelarik maximo historikoa. Gasteizen galera bakarrak 2013 eta 2014an izan ziren, eta 2015ean dugu maximo historikoa.

Getxo, Santurtzi, Basauri, Portugalete eta Sestaok galdu zuten biztanlerik (-1.842) gehien; Bilbo Handiko udalerriak denak. 2012-2015 bitartean, -5.359. Eskualde honetan daude biztanle-dentsitate handiendun udalerriak, km. karratuko 6.000 pasa; Portugaleten, 2015ean, 14.548.

Arabako Mendialdeko Kuartango, Lagran, Bernedo, Arraia-Maeztu eta Harana udalerrietan, -km. karratuko 7 biztanle baino gutxiago- biztanle galera izan da azken urtean.

24 udalerritan lau biztanletik batek baino gehiagok 65 urte edo gehiago ditu

2015ean Euskal AEn 65 urte edo gehiagokoak %21,1 dira; Espainian %18,4. Gaztela eta Leon, Asturias eta Galizian, %24tik gora, zahartuenak. European Italia bakarrik dago euskal proportzioaren gainetik. Duela hamar urte, ehuneko 3 puntu baxuagoa zen proportzioa.

Taula. Euskal AEko biztanleak, lurralde eremuen arabera, adin talde handiei jarraiki

	Guztira	0 - 19	20 - 64	>= 65
Guztira	2.173.210	393.289	1.321.525	458.396
Lurralde historikoak				
Araba/Álava	321.777	60.581	198.585	62.611
Bizkaia	1.141.442	197.308	697.343	246.791
Gipuzkoa	709.991	135.400	425.597	148.994
Hiriburuak				
Bilbao	343.234	55.286	207.431	80.517
Donostia / San Sebastián	180.291	30.784	108.780	40.727
Vitoria-Gasteiz	240.699	45.042	148.616	47.041
Eskualdeak				
Arabako Ibarak / Valles Alaveses	5.980	1.057	3.688	1.235
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	257.808	48.832	159.506	49.470
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3.009	432	1.754	823
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	23.724	4.532	14.606	4.586
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	76.623	14.820	46.316	15.487
Bilbo Handia / Gran Bilbao	859.907	144.144	524.218	191.545
Deba Beherea / Bajo Deba	55.317	10.203	32.684	12.430
Debagoiena / Alto Deba	62.765	11.649	37.363	13.753
Donostialdea / Donostia-San Sebastián	324.123	58.608	195.445	70.070
Durungaldea / Duranguesado	98.119	18.723	60.391	19.005
Enkartzioak / Encartaciones	32.093	5.521	19.814	6.758
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	11.613	2.335	6.966	2.312
Gernika-Bermeo	45.705	8.090	27.391	10.224
Goierri	67.670	13.694	39.908	14.068
Gorbeia Inguruak / Etribac. del Gorbea	8.789	1.858	5.519	1.412
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	34.578	6.067	21.152	7.359
Markina-Ondarroa	26.100	4.541	15.658	5.901
Plentzia-Mungia	55.794	11.757	35.265	8.772
Tolosaldea / Tolosa	48.365	10.242	28.768	9.355
Urola-Kostaldea / Urola Costa	75.128	16.184	45.113	13.831

Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika. 2015/1/1

Batez bestekoaren (%21,1) gainetik 92 udalerri; 159 berdineko edo azpitik. Lehenengo artean, Bilbo, Donostia eta Barakaldo, Euskal AEko biztanleen %29 ia. 2005-2015 bitartean 108 udalerri 65 urte baino gehiagoko proportzioa txikitu egin da, baina udalerrietan biztanle guztien %5,3 bakarrik bizi da.

Badira aldeak 65 urte edo gehiagoko portzentajea: %9,8 Irura eta Elburgo/Burgelun; %39,6 Lagranen. Lau udalerri %10etan daude edo azpitik; aipatuz gain Alegria-Dulantzi eta Larrault; guztien artean 5.551 pertsona. Hiru udalerri %30en gainetik: Lagran, Harana, Elantxobe; guztira 823 biztanle.

Arabako Mendialdean %27,4 (udalerri guztietan adindun asko); ondoren Markina-Ondarroa, %22,6. Azkena Plentzia-Mungia, %15,7.

85 urte edo gehiagokoak %1,9 ziren 2005ean, %3,4 2015ean (%+73). %87ko gehikuntza Durangaldean; %16 Gorbeia Inguruetan; alde handiak. 100 urte edo gehiagokoak 299 ziren 2005ean; 2015ean, 593, bi aldiz gehiago.

Gure erkidegoan 65 urte edo gehiagoko 1,4 pertsona daude 16 urtetik beheragoko bakoitzeko; Espainian 1,2; Asturiasen 2,1.

78 udalerri gainera daude; muturrekoak: Lagran (11), Harana (5,6), Moreda Araba (4), Añana (4). Larraul, Irura, Alegria-Dulantzi eta Baliarrainen, 65 urte edo gehiagoko bakoitzeko 15 urte bitarteko 2 gazte edo gehiago daude.

Arabako udalerrietan ditugu muturreko kasuak adinaren arabera biztanle-banaketan, tamaina txikiagatik eta migrazio bezalako fenomenoek banaketan duten eraginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo biztanleen udal estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo biztanleen udal estatistika. Datu-bankua